

## **Martin Ugalde ez dago euskara hobiratzekotan. Unamuno oker zegoen euskarari buruz**

Xabier G<sup>a</sup> Arguello

*Hemen*, 1987-01-02: 24.

Gehienetan azaldu izan zaigunez, ernegaturik bide zegoen Unamuno 1901.eko Lore-Jokuetan euskarari eraso egin zionean. Gehienetan ere agertu izan digutenez, Bizkaiko Diputazioak eratutako euskara-katedra galtzea izan omen zen haserrearen zergatikoa. *"Baina egia esan aurrerago esanak zituen bereak, karrera-amaierako tesian, alegia. Bertan esaten zuenez, ez bide zituen euskarak aurrera egiterik, erromanikoa ez zelako eta herrikideen artean ere itotzen ari zelako. Beraz, normala zen Sabino Arana baten edo Azkue baten aurrean galtzea bere katedra hori"*.

1884. urtearen inguruan, hogeit hamar urteak doi-doi beterik zituela, Jainkoaz sinesteari utzi zion Miguel de Unamuno y Jugo-k, fedea endeleguaren bitartez konprenitzen saiatu orduko. Geroztik, heriotzaren kontua buruhauskailu obsesibo eta mingarritzat zeukala. Filosofi bideetan barna abiatu zen. Europako pentsalarien gogoetak ahalik eta zuzenki eta zehazkien jaso ahal izateko hizkuntzak ikasteari ekingo zion.

### **Oso euskara traketsa zekien**

*"Etimologo fina zen, baina ez zen linguista. Hizkuntza asko zekien, baina irakurtzeko moduan bakarrik, ez zituen menderatzen hitzegiteko. Berak onartzen zuenez eta idatzirik zeuzkan zenbait euskarazko idazkitan antzeman daitekeenez, oso euskara trakets eta itsusia zekien, eranskailu bat bezalakoa, bere esanetan"*.

Bilbo Zaharreko Erronda kaleko giro mehar goibeldutik sortua, askotan oroitzen zen bilbotar unibertsal hau orduko Plaza Barri loratuan eman ohi zituen arratsalde euritsu eta tristatuez.

Deustuko baserrian pasatutako asteburuak eta mendisken artean ama baten altzoan kulunka bezala marrazten zen itsasadarra ere, askotan izan zituen Unamunok gogoragarri.

Fedea galdutakoan, mendiak hondatu zitzaion eta, bere gogoan erreka iheskorra baino gehiago ez balego bezala, desagertzeko bidean zegoen Bilboko hizkeraz hasi zen arduratzen On Migel, kezkatu eta Ibaizabal bezain dringilin-drangalan: *"Esku bihozbera eta lagungarriren batek jaso ditzan gure dialekto alaiaren azken aztarrenak –desiratzen zuen–, memoria ahazkorretatik agerreraiz bil ditzan bilboko hizkeraren omenezko oroitari bat eraikitzeko"*.

## **Euskararentzat hil-oroitarria**

Urteak aurrera joanda, termino berberatsuak erabiliko zituen euskarari buruz epaitzean: *"euskara berezko ezaugarriengatik ari da azkentzen, beraz, geratzen zaigun lan bakara hauxe da zientziaz enbaltzamatzea, ahanzmenean galdu baino lehenago bere azken aztarnak kupida minberaz jasotzea eta, finean, hil-oroitarri eder bat eraikitzea"*.

*Egian esanda, horren kontraesankorra zenez* Martin Ugaldek guztiaren kontra egin zuen eraso, Espainia eta Errepublikaren kontra ere bai. Beraz, bere idazkietan bilatuko bagenu, edozein gauzaren kontrako argudiorik aurkituko genuke".

Ezin gaintuzkoa zela mingarriki onarturik, heriotza ulertzen saiatuko zen filosofo bilbotarra. Ulertzea nolabait menderatzea baita. Hortaz, euskararen egoera agonikoa heriotza beraren isladapena kontsideratuta agian, arakutzen hasiko zen Unamuno hiltzori horren kausak Zergatikoak jakinik, gaisotasun sendaezinaren berri edukirik, bi bide geratzen omen zaio gizakiari: bere existentziaren itzaltze geldoa sufritzea ala hiltzearen momentua erabakitzea. Horixe zen, izan ere, Unamunok proposatzen bide zuena: euskararen itzaltzea menderatu ezinez, behintzat amaiera duhin bat ematea, herri oso baten suizidio linguistikoa bazen ere.

*"Unamunoren ustez, euskara ez omen zen baliagarria kulturarako, baina gertatzen dena da Unamuno oso gakotuta zegoela garaiko pentsamolde nagusiekin, hizkuntzen eboluzioei buruz"*. Positibismoak eragindako teoria aurrerazale baten arabera, bi hizkuntza mugakidek nagusi-mendekotasun erlaziorik gordetzen baldin bazuten, hobe izaten zen nagusiaren alde jokatzea, nagusitasuna eta modernotasuna sinonimotzat kontsideratzen bait ziren.

*"Dena den, hain kulturaren alde bazegoen, ez dut nik ulertzen zergatik Unamunok ez zuen Euskal Herrian unibertsitate bat ezartzea eskatu, erdaraz izan arren. Eusko Ikaskuntza 1921.ean Euskal Unibertsitatearen eskean hasi zenean, zera adierazi zuen berak, euskaldunontzako oso gomendagarria bide zela euskal Herritik kanpora joatea, ikasi eta giro berriak ezagutzeko"*.